

- **UDALEKUETAKO ORDAINKETA ETA FAKTURA**

Txanda aukeratu, datuak bete eta izen-ematea konfirmatzen zaizuenean jarritako kontu korronteko zenbakitik kenduko zaizue udalekutako zenbatekoa.

Udalekuetako faktura behar izanez gero, udalekuakarritxulo@gmail.com helbide elektronikora idatziz eskatu dezakezue.

- **DIETA BEREZIAK, ALERGIAK, ETAB**

Arritxulo aterpean, etxeko janaria prestatzen dute egunero. Honetaz gain, irteeretara eramaten dugun janaria ere, aterpean bertan prestatuta izaten da.

Dieta bereziak prestatzera ohituta daude, hala ere, **partaideren batek jateko orduan berezitasunik izanez gero, zehaztaperen guztiak aldeztu aurretik abisatu.**

- **BOTIKAK ETA MEDIKU ARRETAK**

Partaideei, gurasoei aldeztu aurretik (medikuearen ziurtagiriarekin) emandako botikak emango dizkiegu soilik.

Gertatu litezkeen istripu edo gaixotasunekin gurasoei abisua pasa ondoren, portokoloa jarraituz Oihartzungo osasun zentrora eramango dugu partaidea.

- **BISITAK ETA TELEFONO DEIAK**

Udalekuetan zehar, bisitak egitea debekatuta dago.

Telefono deiak ere ez ditugu onartuko. Arazoren bat edota urgentzaren bat egonez gero, familiako kideak udalekutako koordinatzaileekin harremanetan jarri ahal izango dira telefono bidez, baita alderantziz ere.

- **ARGAZKIAK**

Izen-ematea egiten den fitxategian, argazkiak egiteko eta sare sozialetan zintzilikatze baimena eskatzen zaie familiei. Argazki guzti hauek, txanda amaitutakoan familia guztiei bidali egiten zaizkie, partaideek udalekuetako gogoeta polita izan dezaten.